

## Altxa

Larraitx Garmendia (943 391267)

**Altzako emakumea definitzen ausartuko al zinateke?**

Definizio bakarra ematea oso zaila da, baina hasteko bi talde bereiztuko nituzke: 40 urte inguruko emakumeak, batetik, eta 60 urte ingurukoak, bestetik.

Bi talde hauetako emakumeek era desberdinean parte hartzen dute Altzako giza erai-kuntzan. Zaharrenak oso gazte etorri ziren Altzara eta auzoa eraikitzea oso zaila egin zitzaizen arazo ekonomikoak zituztelako eta auzoak zerbitzu sozialik ez zuelako.

Bigarren belaunaldia gazteagoa da, baliabide gehiago aurkitu du eta ez du Altzako Emakumearen Elkartearekin hainbesteko harremanik.

**Emakume altzatarrengan aldaketak somatuko zenituen. Zeintzuk izan dira? Zein bilakaera izan du?**

Pentsakeraz aldatu du. Elkarteak dituzte, klaseak jasotzen dituzte, proiektuak elkarrekin egiten dituzte, etxetik ateratzen dira, gizartean gehiago parte hartzen dute...

Emakumearen sozializazioa eman da azken urte hauetan, beren eskubideak

**«Emakumearen sozializazioa eman da azken urteotan»**

# «Emakumeak aisialdia aprobetxatzen ikasi du»

Pasa den asteazkenean, hilak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatu zen. Eguna berezia izan zen Txus Bragadorentzat, lan handia egiten baitu emakumeen alde, batez ere Altxan. Txus Bragado Herrero irakaslea da lanbidez eta Altzako emakumeei buruz hitz egin dugu berarekin.

aldarrikatzen jakin dute.

**Nolakoa da ohiko emakume altzatar baten bizimodua gaur egun?**

Oso emakume langilea da, eta bere soldata etxera ekartzan saiatzen da. Horrez gain, aisialdirako tarteak lagunekin egoteko aprobetxatzen ditu. Bestalde, familiak ama edota emaztearen beharra izaten du batzuetan eta behar hori ere ondo betetzen saiatzen da.

**Aisialdia aipatu duzu. Auzoko emakumeek zer egiten dute denbora tarte horretan?**

Beharbada ez dute aisialdia gaurko gazteen eran ulertuko, eta beste gauza batzuk egingo dituzte. Baina aldaketa egon da. Duela urte batzuk emakume horiek etxetik kanpo afaltzeko izugarrizko buruhaustekak izaten zituzten, esaterako. Hori gaur egun gaudituta dago. Emakumeak aisialdia aprobetxatzen ikasi du eta oraindik ere probetxu handiagoa atera nahi dio.

**Altzako Emakume Elkarteak antolatzen dituen ekintzetan edozeinek parte hartzen al du?**

Partehartzea era desberdinetan ematen da: batzuek elkarteko eginceharrak bete-



«Egungo emakume gazteek ez dute kolektibitatearen beharrik eta gustura daude gizarteak bizi duen bakardadean».

tzen dituzte, beste batzuk berriz, interesagatik inguratzen dira, hau da, zerbait ikasi nahi dutelako. Badira eskulana taldeak lantzen dituztenak eta baita elkarteak antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzen dutenak ere.

Dena den, Altzako Emakume Elkarteari aitortu egin behar zaio giza mailan egin duen lan eskerga; emakume asko elkartearen bitartez sozializatu dira.

**Elkarteetan orohar, adin batetik gorako emakumeek parte hartzen dute normalean. Zer gertatzen da gazte jendearrekin?**

Elkartera 40-60 bitarteko

emakumeek jotzen dute. Zer gertatzen da gazteekin? Beharbada gazteek lanerako prestakuntza dute helburu eta ardura soziala beteta dute nolabait, ez dituzte aurreko belaunaldien kezkek. Bestalde, ekonomikoki gaur egungo emakumea hobeto bizi da. Orohar, gaur egungo gazteek ez dute kolektibitatearen beharra eta gizarteak bizi duen bakardadean gustura sentitzen dira.

**Zer egin duzu martxoaren 8an?**

Aurten Altzako Emakumearen Astea aurretik ospatu dugunez, Donostiako ekintzeta hurbildu naiz.